



TOLOSAKO
UDALA

Esp.zk 2026DO20001

Tolosako udaletxean, sinadurako datan.

ELKARTURIK

Alde batetik, Goiuri Eceiza Arandia, Tolosako Udaleko Kultura eta Festetako zinegotzia eta Tolosako Udaleko idazkaria, **Sara Berasategui Fuertesek** lagunduta.

Eta bestetik, Garikoitz Lobregat Aramburu, Tolosako Jeajeaka Kultur Elkarteko lehendakaria. Elkartearen egoitza soziala: Tolosako Zerkausia 1, 4. ezk, IFK: G42808055

ESKU HARTZEN DUTE

Lehenengoak, Tolosako Udalaren izenean eta ordezkartizan, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1.f) artikulua xedaturikoaren arabera.

Bigarrenak, Tolosako Jeajeaka elkartearen ordezkartizan eta izenean, elkarteko lehendakari gisa, 2022ko abenduaren 13an inskribatutako erabakiaren arabera.

Bi aldeek Hitzarmen hau egiteko behar adinako legezko gaitasuna aitortzen diote elkarri, eta ondorio horretarako

AZALDU DUTE

I.- Jeajeaka Kultur Elkartek, Udal honetan 2026ko urtarrilaren 2an aurkeztutako idatziaren bidez sarrera erregistroko zenbakia 2026-01, proiektuen eta jardueren memoria aurkeztu zuela, Tolosako Udalaren eta bere Erakunde Publikoen Diru-laguntzen Ordenantza Orokorra xedatutakoarekin bat etorritik. Memoria honek 28.140 euroko gastu aurrekontua du, diru-sarrerena berriz, 0, Tolosako udalaren 28.000 barne aurrekontua du, diru-laguntza eskaeraren helburu diren ondorengo jarduerak gauzatu ahal izateko, eta laguntza hori hitzarmen honen bidez emango da.

Helburuak:

- Kultura herrikoiari oihartzuna ematea
- Euskal Herriko eta nazioarteko artisten parte hartzea sustatzea
- Pazko Astean Tolosa, Tolosaldea eta Gipuzkoa biziberritzea
- Bertako zein nazioarteko folk musikariei ikusgarritasuna ematea
- Musika herrikoiaren eta munduetako musikaren arloan Tolosaldea erreferentzia bilakatzea

Jarduerak:

- Apirilaren 9a, osteguna. 19:00. Berdura plaza. Neonymus. Burgos.
- Apirilaren 10a, ostirala. 19:00. Berdura plaza. Harribitxi hirukotea.
- Apirilaren 10a, ostirala. 22:30. Fronton. DJ Makala. Euskal Herria.
- Apirilaren 11a, larunbata. 12:00 KALEPOZA.



TOLOSAKO
UDALA

Esp.zk 2026DO20001

- Apirilaren 11a, larunbata. 20:00. Plaza Berria. Mercedes Peon. Galizia.
- Apirilaren 12a, igandea. 19:00. Berdura Plaza. Antton Valverde. Euskal Herria.

II.- Garikoitz Lobregat Aranburu Tolosako Jeajeaja Kultur Elkarteko lehendakaria Gizarte Segurantzarekiko eta Ogasunarekiko dituen betebeharrak eta dirulaguntza jaso ahal izateko bete beharreko baldintzak betetzen dituela frogatzen duten agiriak aurkeztu ditu. Era berean, frogatu ahal izan da diruz laguntzeko eskatzen diren jarduerak bat datozela elkartearen estatutuaren arautzen diren xedeekin..

III.- Entitatea ez dagoela 38/2003 Legeak, azaroaren 7koak, Diru-laguntzei buruzkoak, bere 13.artikuluko 2. eta 3. zatietan diru-laguntzak jasotzeko adierazitako debeku-ausaren baten pean.

IV.- Bere estatutuekin bat etorritz, entitate eskatzailearen xedea bat datorrela hitzarmen honen bidez emango den diru-laguntzaren xede eta helburuekin.

V.- Tolosako Udalaren 2026ko udal aurrekontuan, 0800.481.16.33410 partida agertzen dela, 28.000 euroko zenbatekoarekin, entitate eskatzailearen diru-laguntza izendunaren kontzeptuaren pean.

VI.- 7/1985 Legeak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituenak, bere 25. artikuluan honela dioela: "Udalerriak, bere interesak kudeatzeko eta bere eskumenen esparruan, auzo-erkidegoaren beharrak eta nahiak betetzen lagundu dezaketen jarduera-mota guztiak bultzatu eta nahi adina zerbitzu publiko egin ditzake.

Hain zuzen ere, Lege horren 25.2 artikulua, udalen eskumenen artean, eskumen hau jasotzen duela: kultur jardueren eta guneen kudeaketa.

Era berean, 2/2016 Legeak, apirilaren 7koak, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoak, bere 17. artikuluan, udalerrien eskumen propioak zeintzuk diren aipatzen ditu, kultura eta kultur-jarduerak antolatzea eta sustatzea, eta erabilera publikoko kultura ekipamenduak kudeatzea tartean.

VII.- Hitzarmen hau ematen dela lege-arau hauen babesean: 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena; 38/2003 Legea, azaroaren 17koa, Diru-laguntzei buruzko lege orokorra eta 887/2006 Errege Dekretua, azaroaren 21ekoa, hura garatzen duen Erregelamendua onartzen duena; eta Tolosako Udalaren eta bere Erakunde Publikoen Diru-laguntzen Ordenantza Orokorra.

Eta ados daudenez, bi aldeek hitzarmen hau formalizatzen dute, ondoren zehazten diren klausulak ezarriz.

KLAUSULAK

Lehena: Xedea.

Hitzarmen honen helburua da Tolosako Udalaren eta Jeajeaka Kultur Elkartearen arteko lankidetzarako eremu egonkor bat ezartzea Tolosako udalerriaren barruan.

Bigarrena: Diruz lagundu daitezkeen jarduerak.

Hitzarmen honen eremuan honako jarduera hauek sartzen dira:

- Apirilaren 9a, osteguna. 19:00. Berdura plaza. Neonymus. Burgos.
- Apirilaren 10a, ostirala. 19:00. Berdura plaza. Harribitxi hirukotea



TOLOSAKO
UDALA

Esp.zk 2026DO20001

- Apirilaren 10a, ostirala. 22:30. Fronton. DJ Makala. Euskal Herria.
- Apirilaren 11a, larunbata. 12:00 KALEPOZA.
- Apirilaren 11a, larunbata. 20:00. Plaza Berria. Mercedes Peon. Galizia.
- Apirilaren 12a, igandea. 19:00. Berdura Plaza. Antton Valverde. Euskal Herria.

Hirugarrena: Diruz lagundutako jardueren finantziaketa.

Tolosako Udalak hartuko du parte hitzartutako jardueren finantzaketan diru-laguntza baten bidez. 2026ko ekitaldian, aurrekontu-baliabide horiek 28.000 eurokoak izango dira, 0800.481.16.33410 Udal Aurrekontuetako partidaren kargura; dena dela, diruz lagundutako elkarteak beste Erakunde batzuen diru-laguntzak ere jaso ditzake.

Diru-laguntza zenbateko zehatza izango da, kostu osoaren ehuneko edo frakzio bat aplikatu gabe finkatu dena. Diruz lagundutako jarduera osorik gauzatzeko beharrezkoa den finantzaketa-aldea onuradunaren kontura geratzen dela ulertuko da.

Diru-laguntza hau bateragarri izango da helburu bereko beste diru-laguntza, laguntza, sarrera edo baliabide batzuekin, edozein administrazio edo entitate publiko edo pribatu nazionalatik, Europar Batasunetik edo nazioarteko erakundeetatik datozenak, kalterik egin gabe honekin batera dauden diren beste diru-laguntzak erregulatzeko araudiak horri buruz agindu dezakeenari.

Gerta daitezkeen aldi bereko finantzaketa-kasuak honako baldintza hauek bete beharra daukate:

a) Emandako diru-laguntzaren zenbatekoak ezin du inola ere gainditu, beste diru-laguntza, laguntza, sarrera edo baliabide batzuekin batera, diruz lagundutako proiektu edo jardueraren kostua.

Muga hori betetzen dela egiaztatzeko, egindako gastu osoa justifikatu behar da eta justifikatzeko kontuak jaso behar du diruz lagundutako jarduera finantzatu duten beste sarrera edo diru-laguntzen zerrenda zehatz bat, zenbatekoak eta beren jatorria adierazita daudela.

Finantzazioan soberakin bat gertatuko balitz proiektu edo jardueraren kostuarekiko, onuradunak itzuli egin beharko luke, berandutza-interesekin batera, dagokion justifikazioari ordainketa-gutunak erantsita. Soberakina itzuliko zaie diru-laguntzak eman dituzten entitateei, entitate horietako bakoitzak emandako diru-laguntzen proportzioan.

Hala ere, baldin eta Tolosako udala bada finantzaketa-soberakinaz ohartu dena, exijituko du soberakinaren zenbateko osoa itzultzeko, berak emandako diru-laguntzaren mugaraino.

Diru-laguntzak elkarrekin bateraezinak izateak ez du galaraziko biak eskatzea, bai, ordea, biak batera jasotzea.

Laugarrena: Indarraldia.

Hitzarmen honek 2026ko urtarrilaren 1etik ekainaren 30era arte izango ditu ondorioak.

ESKUBF3cae33-8078-44fc-8dfa-bd18ce12bd23



TOLOSAKO
UDALA

Esp.zk 2026DO20001

Emandako diru-laguntza behar bezala erabili dela justifikatu behar zaio Kultura, Festak eta Gazteria departamentuari, Tolosako Udalaren eta bere Erakunde Publikoen diru-laguntzen Ordenantza Orokorrek xedatutakoaren arabera.

Bosgarrena: Diru-laguntza jaso dezaketen gastuak.

Diru-laguntza jaso dezaketen gastutzat hartzen dira, indarrean dagoen legeriaren eta Tolosako Udalaren eta bere Erakunde Publikoen diru-laguntzen Ordenantza Orokorren aurreikuspenen esparruaren barruan, baldintza hauek betetzen dituztenak: batere zalantzarik gabe lagundutako jardueraren izaerarekin bat etortzea; deialdian, hitzarmenean edo emakida-ebazpenean ezarritako epearen barruan egitea; beren eskuraketa-balioa merkatuko balioa baino handiagoa ez izatea; eta, deialdian, hitzarmenean edo ebazpenean espresuki kontrakoa xedatu ezean, justifikatzeko epea bukatu aurretik egiaz ordaintzea.

Ostatu, otordu eta joan-etorri gastuak ageri badira, horiek diruz laguntzeko modukoak izango dira soilik lotura zuzena badute diruz lagunduko diren jarduerekin. Jarduera-memorian behar bezala justifikatu beharko da lotura hori eta dagokion sailaren oniritzia jaso beharko dute. Garraio gastuak justifikatzeko, agiriez gain, ondorengo datuak jasotzen dituen ziurtagiria ere aurkeztu beharko du onuradunak: bidaia egin duen pertsona, haren NANA, ibilbidea, Km kopurua, bidaiaren arrazoia eta kostua.

Egin behar dituzten jardueraz gain aurrekontuan aurkezten diren zeharkako zenbait gastu diruz lagunduko dira. Honako hauek; hegaldiak, ekoizle eta diseinu lanak, hain zuzen.

Bakar-bakarrik onartuko dira diru-laguntza eman edo hitzarmena onartutako urtearen barruan sortzen diren gastuak.

Diru-laguntza jaso dezakeen gastuaren zenbatekoa handiagoa bada kontratu publikoen gaineko legerian kontratu txikirako ezarritako zenbatekoak baino, pertsona onuradunak gutxienez hiru hornitzailearen eskaintzak eskatu beharko ditu. Hori ez da beharrezkoa izango baldin eta, diru-laguntza jaso dezaketen gastuen ezaugarri bereziengatik, merkatuan ondasun edo zerbitzuok egin, eman edo hornitzen dituen hainbeste entitaterik ez badago, edo gastua diru-laguntza eskatu baino lehen egin bada. Alderdi horiek ziurtasun osoz justifikatu beharko dira.

Aurkeztutako eskaintzak aurkeztu behar dira edo justifikazioan edo, hala badagokio, diru-laguntzarako eskabidean. Proposamen ekonomikorik onena aukeratzeko ez denean, espresuki justifikatu beharko dira, memoria baten bidez, erabili diren irizpideak.

Gutxienez hiru hornitzaileen eskaintzak aurkeztu ez badira edo aukeratu bada, behar bezala arrazoitu gabe, proposamen ekonomikorik onena ez baizik besteren bat, organo emaileak eskatu ahal izango du ondasun edo zerbitzuaren peritu-tasazio bat egin dadila, eta sortzen diren gastuak pertsona onuradunaren kontura izango dira. Kasu horretan, diru-laguntza kalkulatu da erreferentziatzat harturik bi balioetan txikiena dena: pertsona onuradunarena edo tasazioaren ondorioz ateratakoa

Seigarrena: Diru-laguntzaren justifikazioa.

Dirulaguntza emateko egintzan aurreikusitako baldintza eta helburuak betetzearen eta lortzearen justifikazioa egingo da DLOaren 30. artikuluan, DLOaren Araudian eta Tolosako Udalaren eta bere Erakunde Publikoen dirulaguntzen Ordenantza Orokorrean aurreikusita dagoenaren arabera. Dirulaguntza justifikatzeko «kontu erraztua» izeneko modalitatea erabiliko da.

ESKUBF3cae33-8078-44fc-8dfa-bd18ce12bd23



TOLOSAKO
UDALA

Esp.zk 2026DO20001

Aurkeztu beharreko dokumentazioa ondorengo hau izango da:

2026ko ekainaren 30a baino lehen:

a) Jarduera-memoria bat dirulaguntza ematean ezarritako baldintzak betetzen direlako justifikatzeko, non adieraziko den zein jarduera egin diren eta zein emaitza lortu diren. Memorian berariaz jaso behar da dirulaguntzaren helburua bete dela, eta, hala badagokio, aurreikusitako helburuen aldean benetan lortutakoen ebaluazio bat.

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legea bigarrenaz aldatzen duen martxoaren 3ko 1/2022 Legearen arabera, memorian sexuaren arabera bereizita aurkeztuko da emandako zerbitzuaren azken onuradunen edo erabiltzaileen, titularren eta langileen eta erakundeak dirulaguntza eskatu den zerbitzua emateko kontratatutako langileen informazioa.

b) Diru-sarreraren eta gastuen balantzea, non diruz lagundutako jardueraren edo proiektuaren gastu eta diru-sarrerak jasoko dituen.

Tolosako Udalaren BAL izeneko dokumentua erabili behar da horretarako eta erakunde onuradunaren lehendakariak edo idazkariak sinatu behar du.

c) Gastuak eta inbertsioak sailkatzen dituen zerrenda bat, hartzekoduna eta dokumentua, data eta ordainketa datak adierazita.

Tolosako udalaren GAS izeneko eredia erabili behar da horretarako eta jatorrizko formatuan (xls) aurkeztu beharko da, inolako sinadurarik gabe.

Dirulaguntza aurrekontu zenbatetsi baten arabera ematen denean, gastu eta inbertsoen zerrenda proiektuaren edo diruz lagundutako jardueraren partiden arabera ere sailkatuko da eta adieraziko da zein desbideratze izan diren.

Finantzaketa-iturri bat baino gehiago erabili direnean, Tolosako Udalak gastu horri dagokionez finantzatutako ehuneko aldakorra adieraziko da.

GAS dokumentuko gastuen guztizkoak bat etorri beharko du BAL dokumentuko gastuen guztizkoarekin.

d) Diruz lagundutako jarduera finantzatu duten beste sarrera edo dirulaguntzen zehaztapen bat, non zenbatekoa eta jatorria adieraziko diren.

Aipatutako dokumentazioa aurkeztu ondoren eta dagokion organoak dokumentazio gehigarria aurkezteko errekerimendua egin ondoren:

Dirulaguntzaren zuriaketa aurkezteko «kontu erraztua» izeneko modalitatea erabiliko denez, organo emaileak dirulaguntza egoki aplikatu dela egiaztatzeko arrazoizko ziurtasuna ematen duen ordainagirien lagin bat begiratu du.

Horretarako, a), b), c) eta d) letretan aipatutako dokumentazioa aztertu ondoren, c) letrako gastuak eta inbertsioak sailkatzen dituen zerrendako zenbait gastu eta inbertsioren ondorengo dokumentazioa aurkezteko errekerimendua egingo da:



Esp.zk 2026DO20001

- fakturak eta merkataritzako trafiko juridikorako balioa edo eraginkortasun administratiboa duten gainerako agiriak.
- eta agiri horien ordainketak eginda daudela egiaztatzen dituen dokumentazioa.

Onuradunak 10 eguneko epea izango du aipatutako errekerimendua jakinarazten zaionetik dagokion dokumentazioa aurkez dezan.

Jatorrizko agiri horiek aurkeztuko dira zerrenda zenbakituan emandako hurrenkera-zenbakiaren arabera hurrenez hurren ordenatuta. PDF dokumentu bakarrean aurkeztu beharko dira faktura eta gastua ordaindu izanaren dokumentu guztiak.

Egiaztatu beharreko elementu-kopurua, ondoren adierazten diren mugak errespetatuta kalkulatu da:

- Emandako dirulaguntzaren zenbatekoaren %25a gainditzen duten egiaztagiri guztiak begiratuko dira.
- Gainerako egiaztagirietatik begiratuko da elementuen lagin bat, zeina gutxienez portzentaje hau den populazio osoaren elementu-kopuruarekiko:

- Egiaztagiriak hamar edo hamar baino gutxiago badira: %100.
- Egiaztagiriak hamar baino gehiago eta hogeiei baina gutxiago badira: %70.
- Egiaztagiriak hogeiei baina gehiago eta berrogeita hamar edo berrogeita hamar baino gutxiago badira: %40.
- Egiaztagiriak berrogeita hamar baino gehiago eta ehun edo ehun baino gutxiago badira: %30.
- Egiaztagiriak ehun baino gehiago badira: %20.

Zazpigarrena: Ordaintzeko prozedura.

Dirulaguntzaren ordainketa egingo da, organo eskudunak onartuta, beti ere jarduerarengatik eskumenak dituen departamentuak aldeko txostena egin ondoren.

Dirulaguntza honako era honetan ordainduko da:

Diru-laguntza 100% osotasunean epe bakarrean ordainduko da organo eskudunak erabakiaren jakinarazpena egin ondoren eta hitzarmena sinatzen denean.

Betebeharreko baldintza izango da Tolosako Udalak aurretik emandako diru-laguntzen justifikazio dokumentazio osoa aurkeztu izana, beste diru-laguntza berri batean parte hartu ahal izateko.

Ordainketak Diru-laguntzen Datu Base Nazionalari jakinaraziko zaizkio ordaindu eta hurrengo hilabetea bukatu aurretik.

Zortzigarrena: Diruz lagundutako jardueraren publizitatea.

Entitate onuradunak diruz lagundutako jardueren publikotasuna zabaltzeko neurriak, diruz lagundutako objektuarentzat egoki direnak, dela beren forman, dela beren iraupenean, nola baitira, esaterako, karteletan, plaka oroigarrietan, inprimatutako materialetan, baliabide elektroniko edo ikus-entzunezkoetan Tolosako udalaren irudi instituzionala edo beraren finantzaketa publikoari buruzko legendak sartzea, edo hedabideetan aipamenak egitea, eta hori dena beste finantzaketa-iturri batzuei emandako garrantzia berdinarekin.



TOLOSAKO
UDALA

Esp.zk 2026DO20001

Diru-laguntza jasotzen duen erakundeak konpromisoa hartzen du Tolosako Udalak beharrezkotzat eta interesgarritzat jotako gizarte-, hezkuntza-, kultura- eta jolas-ekitaldietara joan eta bertan parte hartzeko.

Bederatzigarrena: Euskararen erabilpena.

Erakunde onuradunak euskaraz edo bi hizkuntza ofizialetan idatzi eta ezagutarazi beharko ditu —euskarari lehentasuna emanda— diruz lagundutako jardueran argitaratzen dituen idatzi, iragarki, ohar eta gainerako komunikazioak, eta publizitatearekin ere, ahozkoa zein idatzia izan, berdin jokatu beharko du. Halaber, ekitaldi zehatzetan megafoniaz igorritako mezuak euskaraz edo bi hizkuntza ofizialetan transmititu beharko dira. Betebehar hori bete izana diruz lagundutako jarduera egin dela justifikatzerakoan egiaztatu beharko da.

Hamargarrena: Genero berdintasuna.

Diru-laguntzaren onuradunak ezingo dute inolako laguntzarik jaso honako kasuetan:

- Pertsona fisiko edo juridikoak baldin eta beren xede edo helburuak, aukeratzeko edo sartzeko sistema, funtzionamendua, ibilbidea, jarduera, antolamendua edo estatutuak emakumeen eta gizonen aukera-berdintasuneko printzipioaren kontrakoak badira.
- Sexu edota hizkuntza sexista erabiltzen duten pertsona fisiko edo juridikoek.
- Sexuaren ziozko zigor administratibo edo penala jaso duten pertsona fisiko edo juridikoak, ezta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 1/2022 dela-eta hala zigortuta daudenak ere.
- Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 1/2022 Legean edo Emakumeen eta Gizonen berdintasun efektiboari buruzko martxoaren 22ko Lege Organikoan xedatutako obligazioak betetzen ez dituzten entitate edo enpresak.
- Aukeratzeko prozeduran edo funtzionamenduan sexuaren ziozko bereizketaren bat egiten duten elkarteak.

Hamaikagarrena: Jarraipen batzordea.

Hitzarmen honen testuinguruan, bi aldeek adostu dute Hitzarmen honen jarraipena egiteko batzorde bat eratzea. Batzorde horren funtzioak hauek izango dira: hitzarmena ongi betetzen dela zaintzea, sor daitezkeen zalantzak argiturik; diru-laguntza jaso duten jarduera guztien memoria eta ustiapen-kontua adostea; hitzarmena betetzen ote den eta zein neurritan betetzen den aztertzea; eta bi aldeen interesekoak izan daitezkeen lankidetzak bide berriak proposatzea.

Batzorde hau elkarteko bi ordezkariak eta Tolosako udaleko kultur zinegotziak eta kultur teknikarietako batek osatuko dute.

Tolosako Udalak egoki irizten dituen ikuskapen eta ziurtapenak egiteko ahalmena du, diruz lagundutako elkarteak hartutako konpromisoak betetzen dituela egiaztatzeko helburuarekin.

ESKUBf3cae33-8078-44fc-8dfa-bd18ce12bd23



TOLOSAKO
UDALA

Esp.zk 2026DO20001

Hamabigarrena: Iraungitzea.

Hitzarmen hau iraungiko da Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 40/2015 Legearen 51. artikuluan zehaztutako kasuetan.

Hamahirugarrena: Lan eta zerga legeria.

Diruz lagundutako elkarteak bete beharko du, bere jarduera gauzatzean, indarrean dagoen legedian ezarritakoa, bereziki zergei, lan-harremanei, Gizarte Segurantzari edo horren aplikaziotik eratortzen den guztiari dagokienean.

Hamalauugarrena: Izaera administratiboa.

Hitzarmen honek izaera administratiboa du. Beraz, bere klausulek eta bere kasuan aplikatzekoa den legediak arautzen dute.

Hamabosgarrena: Erantzukizunpeko adierazpena.

Tolosako Udalaren eta bere Erakunde Publikoen diru-laguntzen Ordenantza Orokorraren 10.11. artikuluan xedatutakoaren arabera, DLOren 13.2 artikuluan ezarritako onuradun izateko debekuetan erortzen ez delako egiaztapena egingo da notario baten edo funtzionario publiko baten aurreko erantzukizunpeko adierazpen baten bidez.

Hamaseigarrena: Gainerako legeria.

Hitzarmen honetan araututa ez dagoenean, bete beharko da honako lege-arau hauetan xedatutakoa: 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena; 38/2003 Legea, azaroaren 17koa, Diru-laguntzei buruzkoa eta berau garatzeko Erregelamendua onartzen duen 887/2006 Errege Dekretua, uztailaren 21ekoa; eta Tolosako Udalaren eta bere Erakunde Publikoen diru-laguntzen Ordenantza Orokorra.

Hamazazpigarrena: Izaera pertsonaleko datuak.

Izaera pertsonaleko datuak arautzen duen legeriak agintzen duenari jarraituta, bi aldeek konpromiso hartzen dute indarrean dagoen legerian xedatutakoa, aplikatu daitekeen guztian, beteko dutela.

Hemezortzigarrena: Dokumentuen kontsulta eta elkarreragingarritasuna.

39/2015 Legearen 28.artikuluan, 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 6.1.artikuluan eta 38/2003 Legearen 14.artikuluan ezarritakoari jarraiki, Tolosako Udalak informazioa kontsultatuko du zuzenean bere datu baseetan eta, interesdunak horren aurka egiten ez badu, NISAE elkarreragingarritasun nodoaren bidez Gipuzkoako Foru Ogasunean eta Gizarte Segurantzako Diruzaintzan, laguntza lortzeko baldintzak betetzen diren egiaztatzeko behar diren datuak eta, bereziki, honako hauek: Foru Ogasunaren zerga-betebeharretan eta Gizarte Segurantzarekikoetan egunean izatea, eta enpresaren datuak.

HEMERETZIGARRENA: Gardentasun Ataria.

Hitzarmenaren testua argitaratuko da Gardentasun atarian eta Udaletxeko Iragarki taulan.

Eta ados daudela adierazteko, hitzarmena izenpetzen dute bi aldeek, nire aurrean eta sinaduran aipatutako toki eta egunean; Idazkaria naizen honek fede ematen dut.

ESKUBf3cae33-8078-44fc-8dfa-bd18ce12bd23



TOLOSAKO
UDALA

Esp.zk 2026DO20001

KULTURA ETA FESTETAKO ZINEGOTZIA

JEAJEAKA KULTUR ELKARTEA

Goiuri Eceiza Arandia

Garikoitz Lobregat Aramburu

Nire aurrean,
UDAL IDAZKARIA

Sara Berasategui Fuertes

